

EUSKAL HERRIKO IBAIAK

IZENAK BILDUMA 4

LIBURUAREN AURKEZPENA

Pozgarria da Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak egindako lan honen emaitza liburu euskarrian ikustea. Egiten diren lan guztien emaitza ikustea beti da pozgarria, baina liburu batek aparteko “gauzatze maila” ematen dio lan bati...

Esan bezala, gizarte eskari baten ondorioz planteatu zen Onomastika batzordean lan hau egin beharra: seinaleztapenetan, testu liburuetan, mapetan, liburu nahiz aldizkarietan, irrati-telebistan... Ibaien izenek uste baino presentzia handiagoa dute gure artean, baina ez dira beti behar bezala idazten edo erabiltzen. Legearen arabera, Euskaltzaindiari dagokio toponimoen erabilera zuzenerako proposamenak egitea eta lan horri ekin zion gogoz 2008 urrun hartan, Onomastika batzordeak. Ez genekien orduan ia lau urteko lana izango zenik...

Lehenbiziko egitekoa ibaien lerrokada prestatzea izan zen. Araugaiaren ikergaia “hidronimia nagusia” zen, alegia, ibai nagusien izenak bilduko zuen zerrenda. Eta horretarako, lehenik, Euskal Herriko ibai nagusiak zeintzuk ziren erabaki behar zen: hautespen lana egin behar zen. Euskal Herriko mapa handietan –eskala handikoak esan nahi da– normalki errotulatzaren ibaiak izatea ezarri zen, nola edo hala, irizpide nagusi bezala. Eta horretarako, argitaratutako mapak, hiztegiak, atlasak, testu-liburuak eta halakoak eduki ziren kontuan. Errolda hori osatu ahala, ibaien hierarkia ere ezarri joan ginen, hots: zein ibai den zeinen adar eta adarraren adar, eta horrela gero eta erreka txikiagoetara heltzeko. Eztabaidagarria izan daiteke arauan aipatzen diren ibai askoren “nagusi izaera”, baina nonbait gelditu beharra zegoen eta ibai nagusiak non bukatzen diren eta errekaak non hasi erabakitzea ez da beti kontu erraza. Zerrendarekin labur gelditu ordez, oro har, ibaiak gehitzen ausartu gara, izen gehiegi egoteak ez diolakoan euskal toponimiaren normalizazioari kalterik egingo... Nolanahi ere, arauan aipatuko ziren ibaien sailkapen geografiko hori izan genuen abiapuntu, ahal zela, irizpide politiko-administratiboak saihestu eta erliebearen erreferentzia hutsa baliatuz.

Aztertu beharko ziren izenen kopurua ikusi eta batzordearen lanak apur bat ordenatzearen, ibaiok bederatzi zerrendatan sailkatu ziren, bederatzi alderdi hidrografikori zegozkionak eta horien ondorio dira, liburuan ikus daitezkeen bederatzi zerrenda hierarkikoak eta haietako bakoitzari dagokion mapa eskematikoa.

Toponimia lan guztietan egiten den bezala, bi izan dira ikerketa egiteko oinarriak: izenen idatzizko tradizioa eta gaur egungo erabilera. Batzordera zerrenda hutsak eraman ordez, beraz, ibai bakoitzari buruzko txosten osatua eraman ohi genuen, alegia, ibai izen bakoitzarentzako proposamena, iturri historikoetan (mapak, hiztegi geografikoak, entziklopediak, artxiboak, dokumentazioa...) eta ahozko bilketetan jasotako izenak, ibaiaren ibilbidearen gaineko oharak... Toponimian nahi baino sarriago aurkitzen den arazoa da erabilera eta tradizioa ez etortzea guztiz bat. Eta ibaien izenak ez dira horretan salbuespena izan. Askotan gertatzen da ibaiei geografoek edo mapagileek emandako izenak eta ibaiak zeharkatzen dituen herrietako biztanleek emandakoak berdinak ez izatea. Herri askotan ibaiek ez dute izenik, hots, biztanleek aski dute “ibaia”, “erreka”, “erreka nagusia”, “río caudal”, “el agua mayor” eta halakoak erabiltzea. Era berean, askotan, herri bakoitzean ibaia nondik datorren adierazita identifikatzen da, toponimoa baino gehiago “erreferentzial” bat izanik: Behorlegiko erreka, Cadreita, Oloroeko uhaitza, Oibar... Geografoek, ordea, posible izan denean izen berezia nahiago eta, komentzionalki bada ere, hura hobetsi eta hala jaso dute euren lanetan edota mapetan. Zentzu horretan, guretzat, garrantzi handia izan dute tradizio handiko geografo nahiz mapagileen lan hauek, askotan datu komentzional hauek “toponimoago” izaten direlako herritarrek erabilitako generikoak edo erreferentzialak baino. Nolanahi ere, datu horietan guztietan oinarri hartuta berretsi edo zuzendu ditu Onomastika batzordeak bere hasierako proposamenak eta azken zerrenda horiek eraman ditu, banan-banan, Euskaltzaindiaren Osoko bilkurara. Osoko bilkuran ere, euskaltzainek egindako zuzenketak, oharak eta ekarpenak jaso dira, ondoren onartuak izateko eta zerrendek arau maila jaso dezaten. Esan bezala, Euskaltzaindiaren 166. araua da Euskal Herriko 414 ibai nagusien izenak biltzen dituen hau. 2011ko urrian eman zitzaion azken onespina arau osoari eta horrekin batera, Euskaltzaindiaren webgunean paratu zen eskuragarri. Bitarte honetan eta araua hedatzeari

esker, zenbait ohar heldu da erabiltzaile estrategiko batzuengandik eta, Onomastika batzordean beharrezko konprobazioak egin ondoren, dagozkien zuzenketak eraman dira Osoko bilkurara ere. Azken zuzenketak aurtengo iraileko Osoko bilkuran onartu ziren eta dagoeneko liburuan jasota daude. Eskertzekoa da Akademiaren lana hobetze alderako lankidetzari hori, toponimoen normalizazioa gero eta finago egin dadin oso lagungarria delako.

Aurkitu ditugun arazo zehatz batzuk komentatzea ere ez da sobran egongo. Jakina denez, toponimoen xedea lekuak identifikatzea izaten da. Hala eta guztiz, askotan gertatzen da gauzak ez izatea hain sinpleak... Maiz gertatu zaigu ibai batentzat izen bat baino gehiago aurkitzea eta, alderantziz, izen batek ibai bat baino gehiago identifikatzea ere. Halakoetan hautua egin behar da: aukeren artean bati lehentasuna eman behar zaio besteen kaltean.

Ibai bat - izen batzuk: ibaiek duten izaera linealaren ondorioz, ibilbidean zehar iragaten dituzten herrietan izen desberdinak aurkitzea oso normala da. Halako kasuetan erabakigarria izan da lehen aipatutako geografoek eta mapagileek "nagusi"tzat hartu eta hobetsitako aukeren aurrean egindako hautua eta horri eman nahi izan zaio askotan lehentasuna. Hala ere, zenbait kasutan onartu egin dira izenen "sinonimoak" –hau da, erabil daitezkeen beste izendapen batzuk– eta arauan agertzen dira beste izenekin batera.

Izen bat - ibai batzuk: ibai batzuek izen bat bera edukitzeak, halaber, nahastea ekar dezake identifikazioan. Hori saihesteko, herriei egin ohi den bezala, aterabidea bilatu da osagarri bat gehiturik. Adibidez, Ega izeneko hiru ibai daude eta adar nagusia Lagrandik datorrena bada ere, Musituko Ega eta Azazetako Ega ere bereiz daitezke. Kontu hau argitzeko gogoan dut batzordeko beste kide bat eta biok joan ginela Azazeta, Elortza eta Zekuiano, eta Santikurutze Kanpezura, hango jendeari zuzenean galdetzeko eta oso argi gelditu zen geografoek mende bat lehenago ziotena oraindik ere halaxe zela: hirurei ematen zaie Ega izena.

Beste alde batetik, errotuta eta ustez tradiziozkoak ziren izen batzuk, berri samarrak direla ikusi ahal izan dugu dokumentazio historikoa miatuta. Adibidez, Trebiñu konderria zeharkatzen duen Ayuda ibaia lhuda da (dokumentazioan lbda, luda, Uda...) eta, Ayuda izena, herri etimologia dela dirudi, euskararen galerarekin zerikusia duena. Apur bat hegoalderago dagoen Inglares ibaiaz ere badago zer esana. Dokumentazioan Jubalez, Jugalez, Iuglares, Juglares... ageri ohi da. Gaur egun, Zabrana ondoko Santa Cruz del Pierron oraindik Jubález esaten diote ibaiaren ondoko alderdi bati eta dokumentazioan ondo jasota dagoen Jugalez era berreskuratzea proposatzen da arauan, Inglares, seguraski, Juglares aldaeraren akats tipografiko bati zor zaiolako (u > n aldatzea). Bidasoa izenaren erabileraz, Andres Iñigo batzordeburua ibili zen ikerketa zehatza egiten. Idazleek erabilitako formak aztertu ez ezik, ibaiak zeharkatzen dituen herrietan ere galdetzen ibili zen. Hortaz, orain argi samar dago, izen horren amaierako -a, mugatzailearen portaera duela eta, ondorioz, Bidasoa, Bidasoan, Bidasoarekin..., baina Bidasoko, Bidasotik, Bidasora... erabili behar dela deklinatzean.

Era honetako kontuen gainean argi apur bat ematera dator Euskal Herriko ibaien zerrenda hau. Eta aurkezteko moduan ere badago beste arauekin alde txiki bat. Alde batetik, erabiltzaile estrategikoentzat oztoporik egon ez dadin, hiru hizkuntzatan ematen da argitara, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez, Euskal Herrian izaera ofiziala dutenetan alegia. Bestetik, ibaien izenak hiru modutara erakusten dira: lehenik lerrokada alfabetikoa emanik, aldi berean sinonimoak eta beste hizkuntzetako ordainak ere erakutsiz; bigarrenik aipatutako bederatzi eremuetako zerrenda hierarkikoak, nolabait kokaera eta garrantzia aditzera ematen dutenak; eta, azkenik, zerrenda hierarkikoei dagozkien mapa eskematikoak, kokaera aldetik egon litezkeen zalantzak argitzeko.

Euskal Herriko ibaien araua Euskaltzaindiaren web gunean dago eskuragarri Osoko bilkurak onartu zuenetik. 166. araua da eta hor eskura daiteke testu osoa pdf euskarrian, baina orain badago liburu euskarri ederrean ere.

Nire aldetik, hori posible egin duten Euskaltzaindiaren Zuzendaritzari eta Bizkaiko Foru Aldundiari ere eskerrak ematea baino ez da faltatzen. Izan dadila Euskal Herriko toponimiaren normalizazioaren mesedetan. Besterik ez, beraz, eskerrik asko arretagatik eta barkatu azalpenen luzeagatik.

Es motivo de alegría ver en formato bibliográfico el resultado de este trabajo de la Comisión de Onomástica de Euskaltzaindia. Tener en las manos el fruto de un trabajo siempre es motivo de alegría, pero un libro da a ese trabajo algo así como un particular “grado de materialización”...

Como ya se ha dicho, acometer esta tarea se planteó en la Comisión de Onomástica como respuesta a una demanda social real: las señalizaciones, los libros de texto, los mapas, libros o revistas, radiotelevisión... Los nombres de ríos tienen entre nosotros una presencia mayor de la que creemos, pero no siempre se escriben o utilizan de forma correcta. El marco legal actual encomienda a Euskaltzaindia la tarea de proponer el uso correcto de los topónimos y esta fue la labor que acometió con entusiasmo la Comisión de Onomástica en aquel lejano 2008. Aún no sabíamos que el trabajo nos llevaría cuatro años...

La primera tarea consistió en preparar el listado inicial de ríos. El objeto de estudio era la “hidronimia mayor”, es decir, un listado que recogiese los nombres de los ríos principales. Y para ello, en primer lugar, había que decidir cuáles eran los ríos principales de Euskal Herria: realizar un trabajo previo de selección. De algún modo, el criterio básico que se estableció para ello, consistía en elegir los ríos que habitualmente figuran rotulados en los mapas grandes de Euskal Herria –lo que viene a significar de escala grande–. Con esa finalidad, se tuvieron en cuenta mapas editados, diccionarios, atlas, libros de texto y publicaciones de este tipo. A medida que se iba confeccionando el registro, también fuimos estableciendo la jerarquía de los ríos, es decir: qué ríos eran afluentes de cuáles, cuáles afluentes de estos afluentes, etc., hasta llegar así a los regatos más pequeños. Puede discutirse el estatus “principal” de muchos de los ríos citados en la norma, pero había que zanjar la cuestión en algún lugar y no siempre resulta fácil definir dónde acaban los ríos principales y dónde empiezan los arroyos más modestos. En general, nos aventuramos preferentemente a añadir ríos en lugar de quedarnos cortos, pues pensamos que el hecho de que hubiese demasiados nombres en modo alguno va a resultar en perjuicio de la normalización de la toponimia vasca... Sea lo que fuere, esa clasificación geográfica fue el punto de partida para la confección del listado de ríos de la norma, evitando en la medida de lo posible todo criterio político-administrativo y basándonos exclusivamente en la referencia del relieve.

Vista la cantidad de nombres que deberían analizarse y a fin de ordenar un poco los trabajos de la Comisión, se agruparon estos ríos en nueve zonas hidrográficas que darían lugar a los nueve listados jerárquicos que pueden consultarse en el libro, así como al mapa esquemático que corresponde a cada uno de ellos.

Como ocurre en todo trabajo toponímico, los pilares de la investigación han sido dos: la tradición escrita de los nombres y el uso actual de los mismos. Consecuentemente, en vez de llevar a la Comisión simples listados, se confeccionaba para cada río un informe completo que incluía, además de la propuesta de denominación, los nombres con que figuran en las fuentes históricas (mapas, diccionarios geográficos, enciclopedias, archivos, documentación...), así como las denominaciones recogidas en encuestas toponímicas orales, notas sobre el curso de los ríos... En toponimia, el problema de que el uso y la tradición no coincidan totalmente es más frecuente de lo que deseáramos, y los nombres de nuestros ríos no son en esto una excepción. Ocurre muchas veces que los nombres utilizados por geógrafos o cartógrafos no son los mismos que usan los vecinos de las poblaciones que esos ríos cruzan. En muchos pueblos los ríos no reciben un nombre propio, o sea, a los habitantes les resulta suficiente decir “ibaia”, “erreka”, “erreka nagusia”, “río caudal”, “el agua mayor” y denominaciones por el estilo. Igualmente, a menudo se identifica el río indicando de dónde viene, resultando más que un topónimo, un “referencial”: Behorlegiko erreka, Cadreita, Gave d’Oloron, Aibar... Sin embargo, los geógrafos han preferido nombres propios y, aunque fuese de modo convencional, cuando ha sido posible los han priorizado y los han recogido así en sus trabajos o mapas. En este sentido, para nosotros han resultado muy útiles estos trabajos de geógrafos o cartógrafos tradicionales, pues casi siempre estos datos convencionales son “más topónimos” que los genéricos o referenciales utilizados por los vecinos. De uno u otro modo, la Comisión de Onomástica fue refrendando o corrigiendo las propuestas iniciales siempre en base a todos estos datos, para llevar a continuación, una a una, esas listas al Pleno de la Academia. Igualmente, se han recogido las correcciones, anotaciones y aportaciones realizadas en el Pleno por los miembros del mismo, de modo que los listados resultantes fuesen aprobados y adquiriesen el rango de norma académica. Como ya hemos dicho, se trata de la norma número 166 de Euskaltzaindia y recoge los nombres de 414 ríos principales

de Euskal Herria. La norma completa fue aprobada en octubre de 2011 y, desde entonces ha estado disponible el texto completo en la página web de Euskaltzaindia. Durante estos años, y gracias a su difusión, se han recibido algunas aportaciones de usuarios estratégicos y, tras realizar en la Comisión de Onomástica las comprobaciones que se han juzgado oportunas, se han llevado al Pleno algunas propuestas de enmienda que fueron aprobadas y que ya se encuentran recogidas en el libro. Las últimas correcciones fueron aprobadas en el Pleno de septiembre de este año. Debemos agradecer este tipo de aportaciones que vienen a enriquecer el trabajo de la Academia, pues resultan de gran ayuda para que la normalización de nuestros topónimos sea cada vez más afinada.

Tal vez no esté de sobra comentar alguno de los problemas concretos que nos hemos encontrado. Como es sabido, la función de los topónimos es identificar lugares. Sin embargo, muchas veces las cosas no son tan sencillas... A menudo nos ha ocurrido que a un río se le da más de un nombre y, al contrario, que un nombre identifica a más de un río. En estos casos hay que elegir una salida, dando prioridad a una de las opciones en detrimento de las otras.

Un río - varios nombres: debido a que los ríos son entidades esencialmente lineales, es muy normal que reciban diferentes nombres en los pueblos que cruzan a lo largo de su camino. En estos casos, resulta decisiva la elección que en su día realizaran los citados geógrafos o cartógrafos, para optar entre las posibles denominaciones por aquella que consideraban “más importante”. En general se ha dado prioridad a esa opción. No obstante, en algunos casos se ha aceptado la existencia de “sinónimos” —entiéndase: otras denominaciones susceptibles de ser utilizadas— y figuran en la norma junto a los otros nombres.

Un nombre - varios ríos: el hecho de que varios ríos tengan el mismo nombre puede acarrear igualmente problemas de identificación. Para evitarlos, igual que suele hacerse con los nombres de poblaciones, se ha buscado una salida al problema añadiendo un complemento al nombre. Por ejemplo, citamos tres ríos denominados Ega y, aunque el ramal principal es el que viene de Lagran, pueden distinguirse igualmente el Ega de Musitu y el Ega de Azázeta. Recuerdo que a fin de aclarar este entuerto, otro miembro de la Comisión y yo mismo nos acercamos a Azazeta, Leorza-Cicujano, y Santa Cruz de Campezo, para preguntar directamente a los vecinos de esos pueblos y quedó muy claro que lo que ya venían diciendo los geógrafos un siglo antes era exactamente lo que ocurría hoy día: a los tres se les llama Ega.

Por el contrario, al consultar documentación histórica hemos podido comprobar que algunos nombres presuntamente enraizados y tradicionales, son bastante novedosos. Por ejemplo, el río Ayuda que cruza el Condado de Treviño se denomina Ihuda (en la documentación Ibda, Iuda, Uda...), mientras que el nombre Ayuda más parece ser una etimología popular ligada a la pérdida de la lengua vasca. Algo más al sur también podemos comentar el caso del río Inglares. En la documentación suele figurar como Jubalez, Jugalez, Iuglares, Juglares... En la actualidad en Santa Cruz del Fierro, junto a Zambrana, pervive el nombre Jubález para una zona aneja al río y se propone su recuperación, siguiendo en ello la forma Jugalez claramente documentada. Inglares, seguramente, será fruto de una errata tipográfica de la variante Juglares (cambio u > n). El entonces presidente de la Comisión, Andres Iñigo, también realizó sus indagaciones acerca del topónimo Bidasoa. Además de recoger el modo en que los escritores han utilizado el nombre, recabó información sobre su uso en varias de las localidades que el río atraviesa. El resultado mostraba con claridad que la -a final del nombre se comporta en el uso como determinante y, por tanto, debe declinarse Bidasoa, Bidasoan, Bidasoarekin..., pero Bidasoko, Bidasotik, Bidasora...

Este listado de ríos de Euskal Herria viene precisamente a dar luz en torno a cuestiones de ese tipo. Igualmente hay alguna pequeña novedad en el modo de presentar la norma. Por un lado, para que todo usuario estratégico pueda hacer uso de ella, se publica en versión trilingüe, en euskera, castellano y francés, es decir, en las tres lenguas que tienen carácter oficial en Euskal Herria. Por otra parte, los topónimos se relacionan de tres modos: en primer lugar se da un listado alfabético de nombres, mostrando igualmente los sinónimos y los equivalentes de otras lenguas; en segundo lugar, los listados jerárquicos correspondientes a las citadas nueve zonas, donde consta más claramente la situación y la importancia de cada río; por último, los mapas esquemáticos correspondientes a estos listados jerárquicos, de modo que pueda aclararse toda duda que pueda surgir respecto a la situación de los ríos.

La norma de los ríos de Euskal Herria viene estando disponible en la página web de Euskaltzaindia desde que fue aprobada por el Pleno de la Academia. Es la norma número 166 y en la citada web puede descargarse el texto completo en pdf, pero ahora también está a mano en este interesante formato bibliográfico.

Por mi parte, no queda otra cosa que agradecer a la Dirección de Euskaltzaindia y a la Diputación Foral de Bizkaia, haber hecho posible esta edición. Esperemos que sea en beneficio de la normalización de la toponimia vasca. Nada más, por tanto. Muchas gracias por su atención y perdón por haberme alargado con las explicaciones.

Patxi Galé.

Euskaltzaindiaren egoitza (Bilbo), 2014ko azaroaren 6a.

Sede de Euskaltzaindia (Bilbao), 6 de noviembre de 2014.